

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako unibertsitateetako katedrek egindako proiektuetarako dirulaguntza 175.000 eurokoa izanen da 2019an

Gaur bertan argitaratu da Nafarroako Aldizkari Ofizialean Hezkuntza Departamentuaren Ebazpena

Ostirala, 2019.eko martxoak 29

Hezkuntza Departamentuak unibertsitateetako katedrek egindako proiektuetarako 2019ko dirulaguntza onartu du, 175.000 euroko zenbatekoa tarteko. [Ebazpena gaur argitaratu da](#) Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Dirulaguntza hau Nafarroako unibertsitate guztiei zuzendutako deialdia da egun, oraingo Gobernuak egindako aldaketaren ondorioz, izan ere, 2015era arte, Nafarroako Unibertsitateko katedra batek eta UNEDi atxikitako Tuterako zentroko beste katedra batek baizik ez zuten finantzazioa eskuratzen, kontu-sail izendunen bitartez.

Egungo deialdiari esker, unibertsitate bakoitzak (NUP, NU eta UNEDi atxikitako Tuterako eta Iruñeko zentroak, azken honek katedrarik ez duen arren) bost katedratarako finantzaketa ere eskatzen ahal du, eta horietarik hiru diruz lagungarriak izan daitezke, eremu eta eragin desberdinetako hainbat proiektu aurkeztuta ere. 2018an diruz lagundutako katedrak eta proiektuak [esteka honetan](#) kontsulta daitezke.

Nafarroako unibertsitateetako katedren jardunak tamaina handiko kultura eta unibertsitate jarduera eragiten du, betiere unibertsitateen eta ingurune sozialaren arteko harremanak sustatzeko, ezagutza zabaltzeko eta hainbat eremutan formakuntza edo gizarte sentsibilizazioa eskaintzeko xedez. Erakusketak, hitzaldiak, aurkezpenak, mintegiak, ikas-materialen edizio digitala eta liburuen argitalpena dira haien jarduerarik ohikoenak.

2019ko berritasun gisa, deialdiak arreta handiagoa eman dio jardueren banaketa geografikoari, lurralde osoan antolatzeko xedez, eta zenbait eremu berri sartu ditu lehentasunezko arlo tematikoen artean; hala nola, *Ikasketa eta Zerbitzua* eta *Ekintzailtza*.